

Gradu Amaierako Lana
Historiako gradua
2019-2020 ikasturtea

**Iruñeko Antso Nagusiaren erreinuen banaketa: azterketa
bibliografiko bat**

Izena: Martín Nicolás Ruiz de Azúa Echebarria.

Tutorea: Juan José Larrea Conde.

Graduaren saila: Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren historia.

Aurkibidea

Laburpena.....	3
1. Sarrera.....	4
2. Modesto Lafuente.....	5
3. Gregorio de Balparda.....	9
4. Fray Justo Pérez de Urbel.....	16
5. Ondorioak.....	24
Bibliografia.....	28

Laburpena:

Iruñeko Antso III.a (1004-1035) errege nafar handienetarikoa da, baita ezezagunetarikoa ere. Errege honek Iberiar Penintsulako Erdi Aroko erreinu kristauen hegemonia politikoa lortu zuen, *Rey de los reyes de España* izendapena lortuz. Haren jaraunspenak eztabaida historiografiko anitz sortu ditu, horren inguruan bi alderdi sortzeraino: batetik, erregeak bizirik zegoelarik bere menpeko erreinuak semeen artean banatu zituela defendatzen duena, XII. mendeko kroniken esanetan oinarriturik (Antso Nagusiaren garaiko dokumentuak urriak dira); bestetik, lehenseme Gartzeari erreinu guztietako autoritate politikoa oinordetzan utzi eta beste semeak haien lurretan botere politikoarekin altxatu ziren aldekoak. Erreinu-banaketaren tesia auziaren inguruan egindako interpretazio tradizionala da, aho batez onartua XX. mende erdialderaino, Ubieto Arteta eta Ramos Loscertales bezalako historiagileen eskutik semeen arteko banaketa kolokan jarri arte.

Modesto Lafuente ordezkari duen XIX. mendeko historiografia nazionalak Antso Nagusiaren banaketa hori kristau eta musulmanen arteko lehia sekularraren testuinguruan irakurri zuen; ez dugu ahaztu behar 1960-1970eko hamarkadetara arte errekonkista Erdi Aro penintsularra interpretatzeko oinarritzko elementua zela. Horregatik, Iruñeko erregearen erreinu-banaketa ez zen begi onez ikusi: garaiko ideala musulmanak Iberiar Penintsulatik kanporatzeko kristauen batasuna zen. Izan ere, nazio espainiar berriaren legitimazio historikoa lortzeko, katolikoak espainiarrekin identifikatu eta musulmanak kanporatu beharreko atzerritarrak bihurtu zituzten, XIX. mende hasierako frantziarrekin paralelismo bat eratuz.

Hurrengo mendean zehar, historiografia nazionalaren oinarriak mantendu arren, lan historikoen helburuak aldatu ziren, egoera politikoarekin batera. Mende hasierako euskal nazionalismoaren hazkundera Gregorio de Balparda bezalako historialariak nazionalisten esanak gezurtatzera bultzatu zituen, Nagusiaren banaketa testuinguru lokalista batean interpretatzen hasi zelarik. Nafarroa Euskal Probintziak eta Gaztela konkistatu nahi zituen erreinu handinahi gisa aurkeztu zen, Erdi Aroko estatu desberdinen izaerak ikertzeko joeraren testuinguruan.

Frankismoak aurreko bi joerak hartu eta bere proiektua legitimatzeko erabili zituen erregimeneko intelektualen bidez, haien artean Fray Justo Pérez de Urbel. Honek erreinuen ezaugarri psikologikoetan sakondu zuen lehen momentu batean, Nafarroa eta

Gaztelaren interesen arteko talkan gaztelauekin lerrokatuz. Hala ere, mende erdialdeko teoria berriek Iruñeko erregearen banaketa berrikertzerantz behartu zutenean, lurraldeen arteko interes-gatazken auzia baztertu eta XIX. mendean Modesto Lafuentek aurkeztutako kristau eta musulmanen arteko gatazkaren kontestura bueltatu zen.

1. Sarrera:

Azken hamarkadetan Iruñeko Antso Nagusiaren figura hainbat historiagile eta erdiarolariren ikergai izan da. Fray Justo Pérez de Urbelek idatzitako monografiari (*Sancho el Mayor de Navarra*, Madril, 1950) beste hainbat idazki gehitu zaizkio, Anacleto Ortuetaren bi liburukietatik (*Sancho el Mayor, Rey de los vascos*, Buenos Aires, 1963) Historiako Erret-Akademian Eloy Benito Ruanok antolatutako hitzaldi ziklora (*Sancho III el Mayor de Navarra*, Madril, 2003) edo Manez Goyenetche, Aitor Pescador eta Tomás Urzainquik idatzitako lan kolektibora (*Vasconia en el siglo XI*, Iruñea, 2004). Ikus daitekeenez, azken aldian errege nafarrak interes eta ideologia desberdineko pertsonen interesa piztu du eta XXI. mendearen lehen urteetan berari buruzko liburu dezente kaleratu ziren, haien artean Iruñeko erregeari egotzi dakizkiokeen dokumentuak (Roldán Jimeno Aranguren eta Aitor Pescador Medrano, *Colección documental de Sancho Garcés III, el Mayor, rey de Pamplona, 1004-1035*, Iruñea, 2003), haren azterketa erraztuz¹.

Hala ere, Antso Nagusia aspalditik ikertutako figura historikoa da, bere erregealdiko bi gertakari nagusiren inguruan eztabaida historiografikoak sortu direlarik: Gaztelako *infant García* kondearen hilketa eta bere menpeko erreinuen banaketa. Lan honen helburua Iruñeko erregearen erreinu banaketaren interpretazio tradizionala, hau da, Antso III.ak bizirik zegoelarik bere menpeko erreinuak semeen artean banatu izan zituen tesia, defendatu zuten hiru historiagileren azterketa historiografikoa gauzatzea da: Modesto Lafuente (1806-1866), Gregorio de Balparda (1874-1936) eta Fray Justo Pérez de Urbel (1875-1979). Historiagile hauen zenbait lanen berrikuspenaren bitartez lortu nahi dena ez da gaiaren inguruko bilaketa sakon eta zehatza, baizik eta Isabel II.aren garaitik XX. mende erdialderaino banaketaren interpretazioaren eboluzioari buruzko zenbait ideia adieraztea, historiografia nazionala garatzen ari zen garaitik Ubieto Arteta eta Ramos Loscertales bezalako historiagileen tesi berriek banaketaren interpretazio

1 Martínez Diez, 2007, 15.

tradizionala kolokan jarri zutenera arte.

Lana burutzeko, aipatutako autoreen lau idazki erabili dira batez ere: Modesto Lafuenteren *Historia general de España* obraren lehen liburukia, Gregorio de Balpardaren *Historia crítica de Vizcaya y de sus fuerosen* bigarren liburukia eta Fray Justo Pérez de Urbelen bi artikulua, *Navarra y Castilla en tiempo de Sancho el Mayor* eta *La división del reino por Sancho el Mayor*. Hauen analisi eta alderaketaren bitartez autoreek Antso Nagusiaren erreinu banaketaren inguruan egindako irakurketa azaltzea helburu izanik, honekin batera interpretazio horien oinarrian dauden mundu-ikuskerak eta gaur egun izan dezaketen eragina azaltzeko saioa gauzatu da.

2. Modesto Lafuente:

Modesto Lafuente Zamalloa (Rabanal de los Caballeros, Palentzia, 1806-Madril, 1866) idazle kostunbrista satirikoa, politikari liberal katolikoa eta historiagilea izan zen, Espainiako historiografia nazionalaren eredu adierazgarriena. Baliabide gutxiko mediku baten semea, Leoneko seminarioan ikasi zuen eta Elizan karrera egiten saiatu zen apaiz ordenatu gabe, bakarrik tontsura jaso zuelarik. Astorgako seminarioan liburuzain gisa jardun zuen, Filosofiako katedra izateaz gain. 1830eko hamarkada erdialdean, liberalek boterea eskuratu zutenean, seminarioa abandonatu eta bizitza laikoa hautatu zuen: zenbait kargu bete zituen administrazioan eta idazki liberalak kaleratzen hasi zen bere egunkarian, *Fray Gerundio*, gobernu moderatuaren aurkako satirak nabarmenduz; horrek Leoneko Gobernu Zibilan zeukan kargua galtzea eragin zuen. Idazle gisa arrakasta handia izan zuen arren Historia interesatzen zitzaion eta XIX. mende erdialdean artxiboetan aurrera eramandako ikerketak Espainiako historia orokor batean islatu zituen; ekarpen horrengatik 1852an Historiako Erret-Akademiaren parte izateko hautatu zuten. Horrekin lotuta, azpimarragarriak dira Eskola Diplomatikoko zuzendari eta Artxibo eta Liburutegien Batzar Gorenaren presidente bezala gauzatu zituen lanak, garrantzi handikoak izan baitziren historialari lanaren profesionalizatzerako. Horretaz aparte, Biurteko Aurrerakoitik aurrera (1854-1856) hil arte Leoneko barrutitik Kongresurako aulkia lortuko zuen O'Donnellen *Unión Liberal* alderdiarekin, 1861ean Kongresuko lehen lehendakariorde kargua eskuratu zuelarik. Modesto Lafuenteren ondarea eztaba da: bere *Historia general de España*ren eragina XX. mende erdialdera arte kaleratutako Historia manualetan aurki dezakegu.

Obra hori Lafuente erreferentzia kultural klasiko bihurtu du historiaren alorrean, ez bere metodo, informazio edo analisiagatik, baizik eta Espainiako historia nazionalaren sorkuntzaren figura handiena delako².

Historia general de España lanean zehar, Erdi Aroari dagozkion lerroetan, Espainiako³ batasun politiko kristaua lortzeko nahia gehien errepikatzen den ideia da. XI. menderako hurrengo egoera aurkezten du Lafuente: Espainia bi herritan banatuta egongo zen, herri “fededuna” (kristauak) iparraldean eta herri “fedegabea” (musulmanak) hegoaldean, eta hauen arteko liskarrak izango ziren mende osoa definituko zuten jarduerak. Historiagile palentziarrak, Asturiaseko Alfontso II.ak VIII. mende amaiera eta IX. mende hasiera bitartean garatu zituen Hispaniako erreinu bisigodo kristauaren berrezarkuntzaren ideiak jarraituz, kristauak benetako espainiarrekin identifikatzen ditu, bisigodoen ondorengo gisa, eta haien aurrean musulmanak kanpotik etorritako inbaditzaileak izango ziren. Hori dela eta, katolizismoa espainiar nortasunaren parte izango zen eta errege kristauen egitekoa, haien arteko batasun politikoa gauzatzea etsai musulmana kanporatzeko, testuan zehar hainbat aldiz aipatzen duen errekonkista proiektu nazional bezala aurkezten duelarik. Zentzu horretan, Modesto Lafuente Menéndez Pelayo bezalako autoreak barne hartzen dituen korrante historiografiko nazionalen kokatuko zen, katolikotasuna oinarrizko elementua izanik bere interpretazio historikoan⁴. Hau argi gelditzen da Gaztela eta Leoneko Alfontso VI.aren Toledoko konkista kontatzen duenean:

Alfonso VI. como monarca español y cristiano hizo un bien inmenso a España y a la cristiandad con la conquista de Toledo: (...) los toledanos mismos reclamaron ser libertados de su opresión por el monarca de Castilla, y Alfonso pudo, sin romper juramento, hacer aquel servicio inmensurable al cristianismo y a la libertad española, y redimir al propio tiempo a los

2 <http://dbe.rah.es/biografias/11534/modesto-lafuente-y-zamalloa>

3 Espainia kontzeptua nahasgarria da Lafuenteren lanean, Iberiar Penintsularen sinonimo bezala erabiltzen baitu, ondorioz, Iberiar Penintsulako biztanleak espainiarrak izango ziren.

4 Horren adibide bezala 1854ko gorte konstituziogileetan espainiar nazioaren katolikotasunaren inguruko debatean egindako adierazpena daukagu. Bertan, Espainia hain liberal bezain katolikoa izateko eginga zela argudiatu zuen, hain askea bezain fedean batua, “batasun erlijiosoarekin, independentzia nazionala hazi eta askatasun popularrak jaiotzeko eta hazi zirela” aldarrikatuz (<http://dbe.rah.es/biografias/11534/modesto-lafuente-y-zamalloa>).

*musulmanes que le invocaban*⁵.

Bi erlijio kontrajarriren ordezkariak ziren herrien arteko gatazka Erdi Aro espainiarreko gertakizun nagusia izan zela defendatzeaz gain, Modesto Lafuentek Historiaren motorra Probidentzia zela sinesten zuen. Horren arabera, Jainkoak eskuhartze aktiboa izango zuen gertakizun historikoetan: Espainiaren kasuan, Jainkoak fededunen (hau da, kristauen) alde egingo zuen inbaditzaile ez-fededunen aurka, “berrezarpen espainiarraren egintza loriatsua” gauzatzuz. Kontuan hartu behar dugu berarentzat Espainia eta espainiarren izaera errealitate atemporalak direla, ikuskera esentzialista argia adieraziz. Nahiz eta Espainia izendapenaren barne egungo Espainia eta Portugaleko herrialdeak sartu, entitate geopolitiko hau betierekoa balitz bezala aurkezten du Lafuentek, baita haren biztanleen jokaera. Adibidez, espainiarrek betidanik haien askatasuna eta independentzia asko maitatzen dutela aipatzen da, haien arteko borroka eta liskarretan maiz aritu badira ere, eta askatasun-sentimendu hori kanpo-inbaditzaileen presentziaren aurka agertuko zen Espainiako historia osoan zehar, kartagotarren eta erromatarren garaitik, XI. mendean aldatu ez zen ezaugarria:

*A pesar de tantas rivalidades y malquerencias de familia, a pesar de tantas discordias interiores y tantas alianzas con los mahometanos, conservábase siempre vivo el sentimiento de la independencia y el principio religioso como el instinto de la propia conservación*⁶.

Iruñeko Antso III.aren erreinu-banaketari eta horrek ekarri zituen ondorioei dagokienez, *Historia general de España. Desde los tiempos más remotos hasta nuestros días*en lehen liburukian hiru kapitulutan lantzen ditu: hogeigarrenean, *Reinos cristianos: desde Alfonso V. de León hasta Fernando I. de Castilla* deiturikoa, hogeitahirugarrenean, *Los hijos de Fernando el Magno, Sancho, Alfonso y García*, eta hogeitabostgarren kapituluan, *Resumen crítico de los sucesos de este siglo*.

Lafuentek Antso Nagusiari egotzitako 65 urte inguruko erregealdian zehar Iruñeko erreinuak menperatu zituen lurak, inperio gisa izendatzen dituenak, familia-ondare gisa banatu zirela esaten du: Antso III.ak, bizirik zegoelarik, Iruñeko erreinuak menperatu zuen inperioa haren semeen artean banatu zuen. Haren arabera, Gartzea lehensemeak Nafarroako erreinua jaso zuen; Fernandok, antzinako Gaztelako konderrria gehi Leoneko erreinuari konkistatutako lurak, Pisuerga eta Cea ibaien artean; Ramiro

5 Lafuente, 1850-51, 600.

6 Lafuente, 1850-51, 601.

“Sasikoak”, ordura arte Aragoiko konderriak hartzen zuen lurraldea; eta Gonzalok, seme txikienak, Sobrarbe eta Ribagorzako jaurerria. Dena den, erreinuen banaketa hori baldintzatuko zuten Antso III.aren helburuak eta motibazioak ezagutzen ez dituela aitortzen du, ekitatiboa izan ez zela nabarmendu arren. Horri lotuta, azpimarragarria da auzi domestikoei banaketa desigual horretan izango zuten garrantzi handiaren aipamena, Ramiro seme ez-legitimoa izanda ere Aragoiko erreinua jaso izana justifikatuko zutenak. Dena den, ez du azaltzen nola izan daiteke, Gaztela eta Aragoiren kasuan, erreinu baten menpeko izatetik erreinu independente izatera pasatzea. Fernandoren errege-izaerari erantzuteko, ordea, Rodrigo Jiménez de Rada Toledoko artzapezpikuak idatzitako *De rebus Hispaniae* lana iturri gisa erabiliz, 1032 inguruan Antso Nagusiak Leongo Bermudo III.arekin itun batera ailegatu zela aipatzen du; horren ondorioz, Fernando errege leondarraren arrebarekin ezkondu eta Gaztelako errege bihurtuko zen.

Modesto Lafuenterentzat Antso III.aren erreinuaren banaketa erabakigarria bezain zoritxarrekoa izan zen Espainiako historian etorkizunera begira izango zuen eragin hilgarriengatik, hurrengo pasartean adierazten den bezala:

Y bien fuese que recibiera muerte violenta (...) según la Crónica general; bien fuese natural su muerte, (...) no le cogió aquella desprevenido, puesto que sintiendo aproximarse su fin tuvo tiempo para hacer entre sus hijos aquella célebre distribución de reinos que tantas discordias había de producir y tanto había de alterar la respectiva condición de los estados cristianos⁷.

Behin Modesto Lafuenteren marko ideologikoa ezagututa, errazagoa da ulertzea zergatik zorigaitzoko bezala definitzen duen Antso Nagusiak menperatu zituen lurraldeen banaketa. Haren ideala Iruñeko erregeak eremu kristauean zeukan hegemoniaz baliatzea eta buruzagi kristau guztiak bere buruzagitzapean batzea izango zen, krisian zegoen eremu musulmana, momentu hartan taifetaz osatuta zegoena, bereganatzeko. Baina errekonkistari ekin ez ezik, Antso III.ak bere lurak lau semeen artean banatu zituen, aurretik zeuden bi erreinuei (Iruñea eta Leon) beste bi erreinu berri gehitu zitzaizkielarik, Gaztela eta Aragoi. Zoritxarreko erabaki hori 1065ean berriz agertuko zen, bere seme Gaztelako eta Leoneko Fernando I.ak haren lurak semeen artean banatu zituenean, aitaren eredua jarraituz.

7 Lafuente, 1850-51, 551.

Erabaki horiek XI. mende erdialdeko erreinu kristauak atomizazio politikora eta haien arteko liskarretara kondenatu zituzten: Iruñeko Antso Nagusiaren semeak berehala hasi ziren haien arteko liskarretan. Lehenik eta behin, Ramirok eta Gartzek Tafallako oldartzea bezala ezagutzen den gatazka izan zuten; ondoren, Leoneko errege gazteak Cea inguruko lurak inbaditu eta horren aurrean Gaztelako Fernando I.ak, bere anai nagusi Iruñeko Gartzea III.aren laguntzarekin, Bermudo III.a garaitu eta erail zuen Tamaróneko batailan (1037), Leoneko koroa eskuratuz; azkenik, 1054an, Atapuercako batailan, Gaztela eta Leongo Fernandok Gartzea erailko zuen, Iruñekoaren seme Antso (bere iloba) borroka-zelaiari bertan koroatuz. Dena den, Jimenotarren dinastiak ez zuen luze iraungo Iruñeko erresumaren buruan, 1076an Antso IV.aren anaiak beste zenbait lagunekin erregea Peñaléneko sakanetik behera bota baitzuen, Iruñeko erreinua desagertuz: lurak Gaztela eta Leoneko eta Aragoiko erresumek eskuratu zituzten, hau da, Antso IV.aren lehengusuek.

Laburbilduz, Antso Nagusiak erresuma kristauen hegemonia hilketa jarraikiei esker lortu zuen eta semeek haren eredia jarraitu zuten, Erdi Aro espainiarreko dinastia handiekin amaituz: batetik, Gaztelako kondeen ondorengo gizon bakarra eta bere koinatua zen *infant Garcíaren* erailketarekin, Gaztelako konde gisa bere seme Fernando jartzea ahalbidetu zuena; bestetik, Alfontso V.aren heriotza, Leoneko erreinua Bermudo III.a umearen eskuetan utzi zuena. Bere seme Fernandok Gaztela eta Leoneko koroa eskuratu zuen Tamaróneko batailan haren koinatu Bermudo III.a erail eta gero, “hiru mende baino gehiagotan zehar indar guztien aurkako borrokan bukatu ezin izan duten dinastia godo-hispaniar entzutetsuarekin”⁸ amaituz, eta 1076an Gaztela eta Leoneko Alfontso VI.ak eta Aragoiko Antso Ramirezek haien erresumen lurraldeak zabaldu zituzten haien lehengusu Antso IV.ak pairatutako fratrizidioari esker.

Zoritzarreko gertakari guzti horien birpasoa egin ondoren Modesto Lafuentek Espainiaren batasun politikoa edo errekonkista-proiektua gauzatzeko fratrizidioa beharrezko aurrebaldintza dela aldarrikatzen du, kainismoa espainiar izaeraren beste ezaugarri bat dela ondorioztatzen eramaten duena: Espainia nolabaiteko patu madarikatu baten menpe egongo zen, erregeen testamentuetan adieraziko zena, erabaki desberdinak hartu arren. Horren adibide bezala bi kontrako testamentu jartzen ditu, Ramón Berenguer Zaharrarena eta Antso Nagusiarena; biek ondorio latzak izan zituzten

8 Lafuente, 1850-51, 597.

haien semeentzat, fratrizidioa ezaugarri komuna izanik. Horrela adierazten du:

Una fatalidad tan lamentable como indefinible parecía presidir a los testamentos de los príncipes cristianos españoles. Apenas se concentraba en una mano una vasta extensión de territorio a fuerza de apagar interiores disturbios y de vencer enemigos exteriores, volvían las disposiciones testamentarias de los príncipes a legar a sus hijos y a sus reinos una herencia de discordias y una semilla de ambiciones, de envidias, de turbulencias y de crímenes⁹.

Hitz batez, Modesto Lafuentek Iruñeko Antso Nagusiaren jaraunspena erregea bizirik zegoelarik egin zela aldarrikatzen du, handik bi erreinu berri sortuko zirelarik: Gaztela eta Aragoi. Errege nafarrak Iberiar Penintsula osoko hegemonia lortu arren, hegemonia horretaz errekonkista aurreratzeko baliatu ez izana leporatzen dio palentziar historialariak. Gainera, erreinuen banaketarekin anai arteko gatazka militarrek ugarituko ziren, fratrizidioa Antso Nagusiak lortu zuen Erdi Aroko espainiar estatuetako hegemonia politikoa berreskuratzeko baldintza bihurtu zelarik, espainiarren esentzian dagoen joera kainita indartuz. Dinamika horrek Lafuente Espainiaren patu madarikatuari buruz hitzegitera bultzatzen du.

3. Gregorio de Balparda:

Gregorio de Balparda de las Herrerías (Bilbo, 1874-1936) bizkaitar abokatu, politikari eta historiagilea izan zen. Familia onekoa, Filosofia eta Letretan lizentziatu eta Zuzenbidean doktoratu zen *La región, sus derechos y su valor dentro de los Estados nacionales modernos* tesiarekin. Politikari gisa Alderdi Liberalaren oinarri ideologikoak defendatu zituen bere bizitza osoan zehar; nabaria zen bere jarrera antinazionalista, euskal nazionalismoaren postulatuak gezurtatzeko hainbat idazki eta hitzaldi gauzatu zituelarik. Tokiko politika mailan, Bilboko zinegotzi eta alkate izan zen XX. mendeko lehen hamarkadan zehar. Zenbait urte geroago, 1919an, jeltzaleek Bizkaian zeukaten nagusigoari aurre egiteko asmoz, alderdi dinastiko bizkaitarren koalizio bat eratu zen Bilbon, *Liga de Acción Monárquica de Vizcaya* delakoa, eta bere direktorioan Balparda bereziki nabarmendu zen; koalizioaren arrakasta zela eta 1919 eta 1923 bitartean diputatu izan zen Kongresuan, Balmasedako barrutitik. Primo de Riverararen diktadurak eta II. Errepublikak politikatik aldentu zuten, abokatutzan

⁹ Lafuente, 1850-51, 601.

zentratuz: bere abokatu-langela propioa zeukan eta Bilboko Zuzenbide eta Gizarte Zientzien Akademiako presidentea izan zen. Garai hartan ere ikerkuntza historikoari ekin zion, *Historia Crítica de Vizcaya y de sus Fueros* lana argitaratuz, bere obra ezagunena. Gerra Zibila hasi eta berehala, Bilboko Errepublikaren Komandantzia Militarrek Gregorio de Balparda Muslera generala eta Baselga teniente koronelaren matxinada kasurako auditore izendatu zuen, Donostin. Balpardak uko egin zion izendapenari. Hori dela eta, 1936ko abuztuan atxilotu eta *Cabo Quilates* presondegi-itsasontzira eramán zuten. Bertan, hilabetearen 31n, haren zaindariatako batek erail zuen¹⁰.

1922an *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros* lana kaleratu zuen, jada doktoretza-tesian aurkeztutako lurraldeko historiarekiko interesaren jarraipen gisa. Bi urte geroago lehen liburuen berredizioa egin zen, *La dominación extranjera* azpítitularekin, baita liburu berria argitaratu ere, *La Reconquista Cantábrica* izenekoa. Bi liburu hauek obra osoaren lehen liburukia osatuko zuten: guztira hiru liburuki izango ziren, *Historia crítica de Vizcaya y de sus Fueros* izenburuarekin¹¹. Lehenengoaren sarrerán lanaren azken helburua aurkitzen dugu: euskal nazionalismoak bere proposamen politikoak legitimatzeko erabiltzen zituen mito historikoak deuseztatzea Bizkaiko historiaren ikerketa historiko sakona gauzatuz. Izan ere, Balpardaren aburuz mito hauek auzi foralean erabilitako argudioetan oinarritzen ziren:

Sobre el [pasado] de nuestra región se ha escrito mucho y bastante de ello muy estimable, pero la propaganda vasca no ha seleccionado lo mejor y más probado, sino lo que más hacía a sus propósitos sectarios: por obra de ella, la historia y la leyenda han entremezclado sus linderos (...). No es que el nacionalismo vasco haya inventado las más de aquellas leyendas; las encontró autorizadas y utilizadas en el secular pleito foral¹².

Gregorio de Balpardaren hitzak hobeto ulertu eta bere ideologian sakontzeko komenigarria da lan osoan zehar erabilitako zenbait kontzeptu argitzea, bilbotar historiagileak berak lehen liburukian egiten duen bezala. Hasteko, *Espania* hitza Iberiar Penintsulari erreferentzia egiteko erabiltzen du, *Hispania* erromatar probintziaren

10 <http://dbe.rah.es/biografias/34170/gregorio-de-balparda-de-las-herrerias>

11 Hirugarren liburukia Bizkaiko Aldundiko Kultur Batzarrak argitaratu zuen hilondoan, 1945ean, berak egindako lan, hitzaldi eta oharretan oinarrituz.

12 Balparda, 1924.

sinonimo gisa; hori dela eta, Iberiar Penintsulako biztanleei buruz hitzegitean espainiarrez ari da, nahiz eta zenbaitetan godo hitza espainiarren sinonimo bezala erabili. Izendapen geopolitikoekin jarraituz, Araba izendapenak *Provincias Vascongadas* delakoak barne hartuko zituen, hau da, egungo Euskal Autonomia Erkidegoa eta Trebiñuko konderria. Lurralde horiek, Gaztelarekin, eskualde bakarra osatuko zuten, hasieran Oviedoko erreinuaren menpe. Gainera, behin Errioxa birkonkistatuta, bisigodoen garaian bezala, Arabak, Gaztelak eta Errioxak Kantabriako erreinu, dukatu edo konderria osatuko zutela esaten digu. Ez hori bakarrik, aurrerago ikusiko dugun bezala, Kantabriako dukerriaren defentsa sutsua aurrera eramanez, Gaztela, Araba eta are Errioxaren arteko antzekotasunak aldarrikatuz haien arteko batasun-faktore nagusi bezala.

Bestetik, Gregorio de Balpardak euskaraz hitzegiten zutenek osatutako arraza euskaldun baten existentzia ukatzen zuen, bere garaian ohikoak ziren eta askotan nazionalismo etnikoek erabili zituzten azalpen antropologikoekin batera. Bere esanetan, hizkuntza batek zibilizazio bat suposatzen du eta umekeria izango litzateke garai ezagunetan euskara hitzegin den esparru mugatuan zibilizazio bat jaio ahal izan zenik defendatzea. Horregatik, euskararen jatorria Iberiar Penintsula populatu zuten antzinako biztanleei lotzen zuen, XX. mendearen lehen erdialdean oraindik jardunean zegoen baskoiberismoaren tesia jarraituz: horren arabera, euskara antzinako espainiarren hizkuntza izango zen (beraz, zibilizazio espainiar baten existentzia aldarrikatzen du) eta Euskal Probintzietan, euskararekin batera, Forua bezalako zenbait erakunde bereziren biziraupena isolamenduak eta bizitza sozialerako zailtasunek justifikatuko zuten.

*De ese aislamiento forzado y de las dificultades que crea a la vida de relación se ha seguido necesariamente el que, más que la originalidad de sus instituciones, sea el apego a las que en su suelo hayan llegado a instaurarse lo que distingue a estas Provincias Vascongadas, convertidas, por virtud de este sentimiento tradicionalista, en archivo y museo de costumbres, leyes y formas filológicas que fueron comunes a todos los españoles, pero que del resto de la nación han desaparecido*¹³.

Antso III.aren eta bere lur-banaketaren auziaz *Historia crítica de Vizcaya y de sus Fueros*eko bigarren liburukian arduratuko zen, *El primer fuero de Vizcaya, el de los*

13 Balparda, 1924, 19-20.

señores izenekoan. Aipatu behar da jada lanaren sarreran Balpardak garai haren inguruan itzal handiak daudela aditzera ematen digula, Iruñeko Antso Nagusiaren garaia “oraindik iluna” dela esanez. Dena den, lehen momentutik Antso III.a errege gutziatsu gisa aurkezten du eta bere aurrean errege kristau bertutetsu bezala Gaztelako Antso kondearen eredia jartzen du, Iruñekoaren aitagarreba zena; bi mandatarien arteko desberdintasun nagusia lehenengoak bere armadak beste errege kristauen aurka zuzentzea eta bigarrenak Kalifa-herriaren aurkako jarduerak gauzatu izana da.

Desberdintasun politiko horren ondorioek Nagusiari mesede egin zioten, izan ere, “Iruñea eta Naiarako don Antso erregea, XI. mendeko barne-gerren garaian, eragile eta onuradun garrantzitsuena izan zen, Gaztela eta Leoneko dinastiak suntsitu eta heredatu zituenak.¹⁴” Antso III.aren “dinastien suntsitzaile” izena Gaztelako konderria menperatzeko nahien berri emanez justifikatzen da, 1012tik Antso kondearen lurrik konkistatzen hasi zela aldarrikatzen baitu Gregorio de Balpardak, Gaztelako *infant Garcíaren* heriotzaren ardura Antso Handiari egozteaz gain. Kantabriako dukerriaren aldeko defendatzaile sutsuarentzat konkista-saiakera hau inbasio baten antzerakoa zen eta baliteke horrek eragina izatea Antso III.ari buruzko erretratu morala egitean. Izan ere, Balpardarentzat Iruñako erregeak gainontzeko agintari kristauen aurka gauzaturiko eraso eta konkista desberdinen atzean handinahia egongo zen. Handinahi horrek *infant Garcíaren* erailketaren atzetik egotera eramango zuen, baita beranduago Leon inbaditu eta Bermudo III.aren arreba bere seme Fernandorekin ezkontzera behartzera¹⁵. Guzti horren ondorioa Leon eta Gaztelako dinastia historikoen amaiera izango zen, Iruñako Antso III.aren hegemonia Iberiar Penintsulako erreinu kristauean inork ez zalantzatzearekin batera: ekialdean, Aragoi, Sobrarbe eta Ribagorzako birkonkista egozten dio, Bartzelonako kondea bere basailu bihurtu arte; mendebaldean, Gaztelako konderria menperatu eta Leoneko erreinuari Cea eta Pisuerga inguruko lurrik kendu zizkion; azkenik, iparraldean, bere kontrola Gaskoinia eta Tolosako lurretaraino ailegatuko zen. Horregatik, bere dinastia espainiar guztien agintean ezartzean, *Rey de las Españas* eta *Rey de los reyes de España* izengoitiak erabili ziren berataz hitzegitean: *Sancho Garcés, rey de los vascones o navarros, (...) tras el asesinato del infante García, vino y después de él su dinastía, a exterminar las otras dos*

14 Balparda, 1933-34, 9.

15 1037an, Antso hil ostean, Fernandok Tamaróneko batailan Bermudo III.a hil eta bere erreinua eskuratuko zuen, horrela bere aitaren nahiak asetzuz

*dinastías y a asumir, en efecto, la posesión de la soberanía en todos los reinos y estados cristianos peninsulares*¹⁶.

Modesto Lafuenteren tesia jarraituz, Balpardak Antso III.ak hil baino lehen bere menpeko lurak semeen artean banatu zituela esaten du. Ez zen izan Espainia kristau osoa konkistatzeko gai eta Jimenotar bakar baten hegemoniaren jarraipena ekiditu zuen lur-banaketaren bitartez. Horren arabera, Gartztea lehensemeak Nafarroa (ez Iruñea) jasoko zuen, Fernandok Gaztela eta Ramirok, Aragoi; ez du Gonzalo aipatzen. Hori bai, Antsok Fernando Gaztelako errege izendatu zuela aldarrikatzen du, beharbada Leoneko erreinua bereganatzeko orduan erraztasun gehiago izateko. Banaketak Espainiako historian, nahiz eta Balpardak Gaztelakoan arreta jartzen duen Bizkaia barne hartuko zuen erakunde politiko bezala, bi ondorio nagusi izango zituen.

Lehenengo, Antso Handiaren lehentasuna Espainiako subirano kristau guztiek aitortu zuten, espainiar batasunaren kontzientzia bermatu zen. Horren berezitasuna da Iruñeko erregeak lortu izana, ez Leonekoak (monarkia godoaren oinordeko bezala, bertan zetzan batasun-tradizio inperiala) baina bilbotarrak azaltzen du “Errekonkistako estatu independente desberdinak betidanik haien burua Espainiako batasun sozial, politiko eta erlijioso gorenaren parte gisa izan zutela”¹⁷. Horrela, Antso III.aren heriotzatik aurrera fenomeno paradoxikoa suertatuko zen: errege kristau desberdinek bere eredia jarraitzen saiatuko ziren Espainia osoko hegemonia lortu nahian, helburu bateratzaile horrek kristauen arteko gerra, liskar eta hilketak eragingo zituelarik, baita errekonkista-prozesua moteldu ere, Modesto Lafuenteren kainismoaren ideiarekin bat eginez.

Bigarren ondorioa, dagoeneko Gaztelako historian zentratuz, erresuma berri horren erreakzioa izango zen, “aberriaren askatasun eta berreraikuntzaren helburu gorenaren gauzatzerako atal eta baliabide”¹⁸ eta Antso III.aren jarduerak utzitako ondare nagusia. Erreakzio gaztelauaren arrazoia Iruñeko Gartztea III.ak Tamaróneko batailan bere anaia Fernando laguntzeagatik ordainean jasotako lurak izan ziren: Araba eta

16 Balparda, 1933-34, 15. Esan behar da subiranotasun hitza erabili arren, Balpardaren aburuz berehalako subiranotasuna baino gehiago Antso III.ak Espainiako erreinu kristauen gaineko hegemonia lortuko zuela, Palentziako Bernardo apezpikuak jarritako *Rey de los reyes de España* goitizena *Rey de las Españas* baino egokiagoa izanik.

17 Balparda, 1933-34, 95.

18 Balparda, 1933-34, 97.

Gaztela Zaharra Burgoseraino, hau da, historikoki eta geografikoki Gaztelako konderriak okupatu zituen lurraldeak. Balpardaren aburuz Gaztelak, testuan zehar hainbatetan aipatzen den bere izaera kementsu eta askea gorabehera, nafar okupazioa onartuko zukeen Antso Handiaren garaian erresuma kristauen batasunerako bide bezala, baina herentzia eta geroko egoera oso bestelakoa zen. Gainera, Fernandok Leoneko erresumaren koroa eskuratu zuenean egoera larritu zen, Gaztela eta Leoneko lehenengo erregeak bere anaiaren menpe zeuden lurrak berreskuratzeko kanpainak hasiz.

[Sancho III] ni tuvo el acierto de respetar, al distribuir sus dominios entre sus hijos, lo que la historia y la geografía exigían de consuno y, olvidando que ambos territorios los allegó por herencia en su mujer del conde don Sancho, separó Álava de Castilla. (...) Afirmado en su trono Fernando I, no podía tolerar la presencia de García de Navarra en Álava, en media Castilla y a las puertas de Burgos y la pugna adquirió caracteres violentos.¹⁹

Bi anaien arteko liskarren une gorena 1054an gertatuko zen, Atapuercako batailan. Bertan, Jimenotarrei lotutako hirugarren fratrizidioa jazo zen Gartzzea III.aren heriotzarekin (lehenengoa *infant Garciaren* hilketa izango zen eta bigarrena, Bermudo III.arena). Horrela, Fernando I.ak Gaztela Zaharraren iparraldea berreskuratu zuen Nerbioi ibaira arte. Bere heriotza eta gero, bere seme Antso II.ak berreskuratze-lanak jarraitu zituen hegoaldean, Bureba inguruan. Azkenik, 1076an, dinastiaren laugarren fratrizidioarekin (Iruñako Antso IV.aren amilketa) Gaztela eta Leoneko Alfontso VI.ak Errioxa eta Araba bereganatuko zituen, berrezarkuntza osotuz.

Horrela, 1076ko fratrizidioak eragindako aldaketa geopolitikoak, lurren arteko antzekotasunen aldetik, positiboak izan ziren erresuma guztientzat, behin XI. mende hasierako nafar konkistaren ondorioak baliogabetuta: inolako biolentziarik gabe, “Nafarroak, bere kidetasun etniko, geogarako eta historikoengatik zegokion bezala, aragoitar erresumarantz grabitatu zuen, bera bezala jatorriz baskoia zena: Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak, arrazoi berdinatik, Kantabriako gainontzeko eskualdeekin batera, Gaztelakoaren barne sartu ziren”²⁰.

Laburbilduz, Gregorio de Balpardak Antso III.aren erreinu-banaketa ez zuen begi onez ikusi, Espainia kristauarengan eragin zituen liskarreatik; gainera, Kalifatuaren krisi testuinguruan, fededunen arteko gerren ondorioz erregeek

19 Balparda, 1933-34, 243-244.

20 Balparda, 1933-34, 256.

errekonkista-jarduerei atentzio gutxiago jarri zieten; egoera batean non erresuma kristauen batasunak Espainiaren birkonkista gauzatzeko aukera handiak izango zituen Antso Nagusiaren agindupean, honek proiektua ekiditu zuen bere herentziaren bidez. Balparda Modesto Lafuenteren tesien jarraitzailea da “berrezarpen espainiarraren egintza loriatsuaren” defendatzaile bezala, beraz, korronte historiografiko nazionalaren barne sar genezake. Baina bilbotar historiagilea berezi egin zuena Euskal Probintzien eta Gaztelaren arteko kidesaren adierazpena izan zen (hauen artean azpimarragarria da etniaren aipamena), zenbait euskal nazionalistak haien helburu politikoak lortzeko defendatzen zituzten Nafarroa eta Euskal Probintzien arteko ahaidetasunen aurrean.

4. Fray Justo Pérez de Urbel:

Justo Pérez Santiago (Pedrosa del Río Urbel, Burgos, 1895-Madril, 1979) monje eta abade beneditarra izan zen, baita historiagilea ere. Nekazari familia aberats batean jaioa, humanitateak ikasi zituen Siloseko Santo Domingo Abadiaren eskola monastikoan. 1912an bere profesio monastikoa egin eta sei urte geroago apaiz ordenatu zen Burgosen. Gaztetan poesia eta artikulua laburrak kaleratzen hasi zen zenbait aldizkari erlijiosotan eta 1920tik aurrera bere lanak Fray Justo Pérez de Urbel izenarekin sinatzen hasi zen, horrekin aditzera eman zelarik. Hagiografia, Historia, Arte eta Liturgiari buruz idatzi zuen, *Abc* eta *El Debate* egunkarietan kolaboratzeaz gain. Garai horretakoak dira zenbait lan historiko garrantzitsu, adibidez, *El claustro de Silos* (1930), *Los monjes españoles en la Edad Media* (1933) eta *Año cristiano* (1933-1935).

Espainiako gerra zibilak fray Justoren bizitza aldatu zuen: gatazkan zehar Espainia osotik hitzaldiak eman eta matxinatutako militarrek lagundu zituen, trukean behin-behineko alferez kargua eskuratuz. Gainera, 1938tik aurrera, Pilar Primo de Riverak gonbidatuta, Falange berriko *Sección Femeninaren* aholkulari erlijioso gisa jardun zuen. Behin gerra amaituta, Historia lanak baztertu gabe, Pérez de Urbelek jardura politikoekin jarraitu zuen, Francoren erregimenean garrantzizko karguak eskuratuz: *Consejo Nacional del Movimiento*ren kide eta Gorteetako prokuradore izan zen hainbat urtez. 1944an “Francisco Franco” sari nazionala irabazi zuen *Historia del condado de Castilla* lanarengatik eta CSICeko Kontseilu Goreneko kide izendatu zuten. Horrekin batera, titulazio akademikoak eskuratzeko azterketak egin eta, gerra ondoko ezohiko legedia aprobetxatuz, Historiako doktore gradua lortu zuen *Sancho el Mayor de*

Navarra y la incorporación de España al mundo europeo tesiarekin; 1950etik aurrera Historia katedraduna izan zen Unibertsitate Konplutensean. Jarduera akademikoez aparte, 1955ean Franco generalak Cuelgamurosen eraikitako basilikaren ondoan monastegi berria fundatzeko proiektuari ekin zion; hiru urte geroago komunitate berria ezarri zen, fray Justo *Valle de los Caídos*eko Gurutze Santuaren monastegiko lehen abade mitraduna izanik bere dimisioa aurkeztu arte, 1966an. Ordutik aurrera, lan historikoak kaleratzen eta hitzaldiak ematen jarraitu zuen hil arte, besteak beste Deustoko unibertsitatean²¹. Cuelgamurosen lurperatu zuten.

Fray Justok lan historiko anitz kaleratu zituen: Erdi Aroan batez ere espezializatu eta bere ikergai nagusia Gaztelako konderriaren jatorria izan zen, 1944an *Historia del condado de Castilla* idatzi zuenetik. Bertan Gaztelaren aldeko jarrera argia adierazten du, gaztelauen irrika autonomista konderriaren mugako izaeraren bidez azaltzen duelarik; egoera horrek “mugako pentsaera” bat sortuko zuen, “nazionalismo gaztelau” bat eratuz. Gai hau konstantea izan zen bere produkzio akademikoan eta beste batzuk ikertzeraz bultzatu zuen, hala nola Gaztelako lurren birpopulaketa (Claudio Sánchez-Albornozen tesiekin bat eginez), Fernán González kondearen figura edo Gaztela ondoko lurralde eta erreinuen historia (batez ere Nafarroako erresuma eta Errioxa)²². Nabarmena da Antso Nagusiari dedikatutako monografia, *Sancho el Mayor de Navarra* (1950), hari buruz egindako “biografia erudituen eta dokumentatuen”²³. Aztergai ditugun bi artikuluak azken gai horren barne sartzen dira. Lehenengoa, *Navarra y Castilla en tiempo de Sancho el Mayor*, 1945ean kaleratu zuen, Errioxan gaztelauek eta nafarrek izandako gatazkak azaltzen dituen *Relaciones entre los reyes de Navarra y los condes de Castilla en el siglo X* lanaren azken atal gisa. Bederatzi urte geroago, Antso Nagusiaren herendentziaren inguruan sortutako interpretazio berriei erantzunez, bigarren artikulua idatziko zuen, *La división del reino por Sancho el Mayor*.

Fray Justo Pérez de Urbel historiagile nazionalkatolikoa zela esan dezakegu: Frankoren erregimenaren intelektual nabarmena, espainiar nortasunaren elementu bereizgarrietako bat katolikotasuna zela sinesten zuen, hau da, Erdi Aroko Iberiar Penintsulako bi bloke antagonikoen testuinguruan kristauak espainiarrekin identifikatzen zituen, kanpotar musulmanen aurrean, eta lehenengoen bisigodoen

21 <http://dbe.rah.es/biografias/5460/justo-perez-santiago>

22 <http://www.valledeloscaidos.es/files/fray-justo-perez-de-urbel.pdf>

23 Martínez Díez, 2007, 189.

erreinua berrezartzeko diskurtsoa barneratu zuen, errekonkistaren ideala defendatzera eramane zuena²⁴. Puntu honetan garrantzitsua da aipatzea artikuluotan Espainia hitza gaur egungo espainiar estatuaren mugak identifikatzeko erabiltzen duela, izendapen geografiko gisa, gehienetan Iberiar Penintsula aipatzen badu ere (Lafuentek eta Balpardak, berriz, Penintsulari erreferentzia egiteko Espainia hitza hartu zuten). Horrela, batzuetan *la España cristiana* bezalako esaldiak aurki ditzakegu²⁵. Azkenik, Pirinioetako erresumari erreferentzia egiteko esan daiteke “Nafarroako erreinu” eta “Iruñeko erreinu” izenak bereizi gabe erabiltzen dituela, “Nafarroa” lehenetsi arren.

Lehenengo artikuluari helduz, *Navarra y Castilla en tiempo de Sancho el Mayor*, hasierako orrialdeetan Iruñeko erresumaren ibilbide politikoaren laburpena egiten du, Antso III.aren erregealdiak bere erresuman ez ezik Iberiar Penintsulako lurralde kristau guztietan izan zuen berebiziko garrantzia azpimarratzeko. Fray Justoren arabera, Nafarroako erreinua ez zen Jimenotarren dinastiak boterea eskuratu arte sortuko, aurretik potentzia desberdinak (asturiarrak, musulmanak eta karolingioak) haien arteko norgehiagokan egon zirelako, bertan haien nagusitasuna inposatzeko asmoz. Erreinu berria estatu desberdinen batasuna izango zen, Iruña guzti horien hiriburu, eta erregeak tokiko buruzagiekin adiskidetasun eta ahaidetasunezko harremanak ezarriko zituen. Ezaugarri kulturei dagokienez, hurrengo mespretxuzko komentarioa egiten du Fray Justok:

*Ajeno a la empresa de la reconquista, y muy superficialmente imbuido de los principios cristianos, persigue sus fines políticos de una manera poco escrupulosa, que debió ser el escándalo de los castellanos intransigentes y de los leoneses avezados a una lucha secular*²⁶.

Ezaugarri horiek baliatuz, XI. mendean Iruñeko Antso Nagusiak Iberiar Penintsulako eremu kristauean hegemonia politikoa lortuko zuen. Garaiko kronikek haren inguruan informazio gutxi eskaintzen digutenez, pertsonaia enigmatikoa da,

²⁴ Dena den, kontuan hartu behar dugu Francoren erregimeneko intelektualen barne jarrera kontraesankorrak hartu zirela Erdi Aroan zehar musulmanen presentzia nazio espainiarraren antzinatasunaren ideiarekin uztartzeko orduan. Adibidez, bazeuden musulmanen espainiar nortasuna defendatzen zutenak (Lorenzo, 2017)

²⁵ Espainia musulman batean pentsaraziko gintuena, baina horrek ez luke esan nahiko Fray Justorentzat musulman horiek espainiarrak zirenik, baizik eta Espainia entitate geografikoan biziko zirela, konnotazio politikorik gabe

²⁶ Pérez de Urbel, 1945, 39.

intuizioa beharrezkoa izanik hura ezagutzeko. Pérez de Urbelek *Romanz del Infant Garcia* erromantzea hartzen du Antso III.a ikertzeko iturri gisa; handik ateratzen duen interpretazioa Nafarroako erreinuaz zeukan ideiarene adierazle da. Izan ere, artikuluan Nafarroa anbizio handiko erresuma bezala aurkezten zaigu, Gaztelak desiratzen zituen Errioxa eta euskal probintziak bereganatzeko prest. Horren atzean X. mendeko gertakariak egongo ziren: Asturiaseko erresumaren barne zegoen “baskoien lurralde osoa” (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari erreferentzia eginez) Gaztelarantz begiratzen hasi zen, Fernán González kondearen politika zentralistek Arabako konderrria xurgatzeraino. Errioxa, ordea, Nafarroaren esku geratu zen, tokiko jaunak erakartzeko politikari esker. Horregatik, hurrengo mendean Antso Nagusiaren konkista-planen gutxienekoa euskal lurraldeak izango ziren²⁷, Nafarroak antzinatek zeukan desioa betetz.

Dena den, bere erregealdian zehar Gaztela eta Nafarroaren arteko tentsioak ez ziren agerian jarriko berandu arte. Antso Gaztelako kondearen alabarekin ezkondu zen, Munia, eta bere aitagarreba bizi izan zen bitartean, Gaztela eta Nafarroaren arteko harremanak onak izan ziren. Hori dela eta, ekialderantz begiratu zuen bere konkista nahiak asetzeko. Esaten da Gaztelako Antso kondearengan maisu bat ikusi zuela politikaren arloan, ikasleak maisua gaitutuko zuelarik; Fray Justok kondea eta erregearen arteko antzekotasun anitz nabaritzen ditu, batez ere gaitasun diplomatiko eta militar handiak azpimarratuz, baina, Balpardaren antzera, kanpo-politikan aurrera eramandako jardueretan oinarriturik, bereizpen moral bat egiten du: berarentzat Iruñeko Antso Nagusiak bere gaitasun politiko eta militar nabarmenak errekonkista-jardueretan aplikatu ez izana Antso aitagarrebatik aldentzeko zuen funtsezko ezaugarria da eta horren atzean nafarren eta gaztelauen izaerak egongo ziren. Gaztelak eta Leonek bisigodoen erreinua berrezartzeko ideala lehenetsiko zuten haien kanpo-politikan, nafarren anbizioak lokalistagoak izango ziren bitartean. Hori dela eta, nafarren berekoikeriak errekonkista-prozesua azkarrago aurrera eramatea ekidituko zuen.

1017an, Gaztelako Antso kondea hilda, Iruñekoak mendebaldeko kanpaina hasiko zuen bere burua Gartzea konde gazte berriaren babesle gisa aurkeztuz eta, aldi berean, arreba Leoneko Alfontso V.arekin ezkonduz. Ordutik aurrera Espainia kristauko egoera geopolitikoa aldatuko zen: Antso III.ak aurrera egiten zuen Gaztelako ekialdeko mugan zehar bakea hautsi gabe, tokiko jaunak haren aldera erakarriz, Gaztela eta

²⁷ Pérez de Urbel, 1945, 55.

Leoneko gorteetan Iruñearen aldeko alderdiek haien lana egiten zuten bitartean. Hori dela eta, Gaztelak bere antzinako etsai Leonengan Antso erregeaz babesteko aliatu bat ikusiko zuen eta 1028an, Alfontso V.a hil zenean hamaika urteko Bermudo III.a Leoneko erresumaren buruan utziz, leondarrek *infant García* errege berriaren arrebarekin ezkontzea onartu zuten. Nahiz eta Iruñeko erregeak bere oniritzia eman, Fray Justok hurrengo urteko *infant García*ren erailketaren bultzatzaile bezala seinalatzen du, *Romanz del infant García* kantan oinarrituz.

*Es natural pensar que aquel crimen tan a tiempo tenía todos los caracteres de una trama política, en que una mano oculta supo conjugar en provecho propio toda suerte de pasiones y apetencias individuales. Mi opinión sincera es que el nombre de Sancho el Mayor nos da la clave de aquel drama sangriento*²⁸.

Konde gaztearen hilketak Gaztela Iruñeko Antso Nagusiaren eskuetan utzi zuen bere emaztearen eskubideei esker baina, gaztelauek eskatuta, eta konderrria Iruñako erresumak xurgatu ez zezan, bere seme Fernando izendatuko zuen konderriaren oinordeko. Haren menpe Gaztelako konderriaren mugak aldatuko ziren: ekialdeko lurak Iruñako erresumaren parte izatera pasako ziren eta mendebaldeko muga zabalduko zen, gaztelauek luzaroan desiratutako Cea eta Pisuerga bitarteko ingurua barneratuz. Pérez de Urbelentzat konderriaren mutilazio hori Iruñekoaren akats politiko larriena izan zen, bere dinastiari egotzi izan zaion madarikazioa eragingo baitzuen, hau da, kainismoa. Hala ere, Leongo erregeak ez zuen onartu bere erresumako mendebaldeko lurak galtzea eta Antso III.ak Leonen aurkako kanpaina martxan jarritz erantzun zuen: 1033an Astorga hartu zuen, hurrengo urtean, Leon; Bermudo III.a Galizian babestu behar izan zen. Iruñako erresuma bere gorenean zegoen: armen bitartez Sobrarbe, Ribagorza, Gaztela eta Leoneko zati handi bat beraganatu zituen; diplomaziari esker, Gaskoinia eta Bartzelonako konderriak bere basailu bihurtu ziren²⁹.

Fray Justok Antso III.a bere handinahia asetzeko jarduerak ahituta hil zela esaten du, oraindik gaztea zelarik:

Su vida gigante se había consumido en un ardor febril, en una inquietud continua. Entonces pudo verse que en sus conquistas le guiaban más bien anhelos de ambición que ideales de unidad peninsular. Quería tierras para repartir

28 Pérez de Urbel, 1945, 57.

29 Pérez de Urbel, 1945, 60.

*entre sus hijos y el reparto lo hizo él mismo antes de morir, con tan poco acierto que con él dejará entre ellos gérmenes de odios y de luchas*³⁰.

Pasarte honetan argi geratzen da Antso Nagusiaren banaketari buruz egiten duen interpretazioa Modesto Lafuentek egindakoan inspiratzen dela, erregea gazte hil zela esan arren (Lafuentek eta Balpardak erregea zaharra zelarik bere erresuma zatitzeko erabakia hartu zuela diote). Haren nahia Iberiar Penintsulako iparralde osoa menperatzea zen eta hori gauzatu nahian eman zuen bere bizitza, anbizioak aizkatuta. Nagusiak bere erreinuak bizirik zegoelarik semeen artean banatu zituen; Pérez de Urbelen arabera erabaki horren aurrekariak jada 1028an aurkitzen dira (Gartzea konde gaztelaua erail baino lehen), urte hartan hasi baitziren errege izendatzen Antsoren semeak³¹. Dena den, banaketak anaien arteko borrokak eragingo zituen; Pérez de Urbelek, Lafuenteren kainismoak menperatutako Espainiaren ideiarekin bat eginez, ondorio hauek bere herrialdeko espirituari leporatzen dizkio. Horrez gain, Antso III.ak utzitako ondare nagusia laburki aipatzen du, jada bere doktoretza-tesiaren izenburuan agertzen zena: Espainia mendebaldeko kristautasunean sartu izana.

Navarra y Castilla en tiempo de Sancho el Mayor idatzi eta bederatzi urte geroago, Ramos Loscertales eta Ubieto Arteta historiagileek Iruñeko Antso Nagusiaren jaraunspenaren inguruko teoria berriak plazaratu ondoren, Fray Justok gaiaren inguruko berrikuspen bat gauzatu zuen tesi berri horiek ezeztatzeko helburuarekin: *La división del reino por Sancho el Mayor*. Aurreko artikuluko tonu epikoa eta estatuen ezaugarri psikologikoak alde batera utziz, oraingoan erudizioa bilatu eta dokumentuen analisitik abiatuta bi historiagile horien tesien aurka jotzen du, nafarraren banaketari buruzko interpretazio tradizionala defendatuz.

Ramos Loscertales eta Ubieto Artetaren aburuz, Iruñeko erregeak erreinu osoa lehenseme Gartzeari utziko zion, beste semeei zenbait ondasun emanez jabetza pribatu gisa, botere politikorik gabe. Gauzak horrela, Fernando, Ramiro eta Gonzalo haien jabetzetako botere politikoarekin altxatuko ziren erregearen autoridadearen kontra, haien buruak errege izendatuz. Hala ere, esan beharra dago hau gertatu ahal izateko bi historiagileak Pérez de Urbelen premisa berdinetik abiatzen direla: Iruñako erreinuak Antso Nagusiaren erregealdian zehar konkistatutako lurak xurgatu zituela; horren frog

30 Pérez de Urbel, 1945, 61.

31 Pérez de Urbel, 1945, 56.

da Gaztela Iruñako erresumaren “probintzia” gisa hartzea³².

Interpretazio iraultzaile hori sostengatzen duten argumentu nagusiak hiru izango ziren: Iruñako erresumaren banaketa gesta-kanten korolariora izango zela, Ramiro I.a ez zela inoiz errege izendatuko bere dokumentuen protokoloan eta aurkikuntza arkeologiko bat, Jakan jaulkitako Gartztea Naiarakoaren txanpon bat. Guzti horrek frogatuko zuen Gartztea III.ak bere aitaren erreinu osoa jaso zuela edo, behintzat, Aragoi bere menpe geratu zela (Aragoiko konderriaren sorrerari buruzko interpretazio tradizionalen aurka joz). Ondorioz, ez zen haien aitak konkistatutako lur zabalen zatiketarik egongo. Horrek hurrengo urteetako gertakarien interpretazioa aldaraziko zuen: Tafallan eta Atapuercan adierazitako anaien arteko borroka Gartztearen autoritate politikoaren usurpazio kontestuan ulertu beharko ziren, Atapuercako batailan Iruñeko erregea jasotako ondarea defendatzeagatik erailko zutelarik.

Pérez de Urbelek garaiko iturri eta dokumentuen berrikuspena gauzatzen du, kronisten esanak eta garaiko dokumentuak aztertuz. Lan horretatik ateratzen duen ondorioa argia da: dokumentazioak kronistek aldarrikatutakoa baieztatzen dute eta Antso Nagusiak bizirik zegoelarik banatu zuen bere erresuma. Horrek azalduko luke Rodako Kodexak Gartztea Naiarakoari hogeitabat urteko erregealdia egozte, Gartztea aita hil baino lehen Iruñean erreinatzen hasiko zen eta.

Antso III.a hil aurreko hilabeteetako dokumentuek hurrengo egoera aurkezten dute: Gartztea jada Iruñean erreinatzen hasia zen baina ez zen Aragoiko errege titulatu, bere aita bezala; Fernandok Gaztelako konde gisa jarduten zuen eta Ramirok Aragoi osoa jaso zuen, zenbait toki izan ezik. Fray Justok Iruñan nagusi zen tradizio juridikoa erabiltzen du anaiek lur horien botere politikoa jaso zutela defendatzeko:

Esto debió de parecer muy natural en una corte donde, sin idea ninguna del sentido unitario que predominaba en León, se consideraba el reino como un patrimonio familiar; y, en consecuencia, se le distribuía hacia varias generaciones entre los familiares del rey, que seguían reconociendo la autoridad superior del que reinaba en Pamplona³³.

Are gehiago, 1035 eta 1036 bitarteko dokumentuetan Pérez de Urbelek ez du anaien arteko borrokaren berririk eman dezakeen arrastorik aurkitzen, zatiketa era baketsuan gauzatu zela ondorioztatuz. Hau frogatzeko 1037ko karta edo diploma baten

³² Pérez de Urbel, 1954, 13-14.

³³ Pérez de Urbel, 1954, 13.

adibidea jartzen du, non Gartzea III.a, Ramiro I.a eta Gonzalo agertzen diren, elkarren onarpena bertan islatuz; Gartzea printze izendatzen da, eta Ramiro eta Gonzalo, *reguli*. Gutun horrek hiru anaien arteko harremanen izaera kordialaren egitasuna aitortuko zuen. Hala ere, guztiak ez ziren maila berdinean egongo, Gonzalo babesle arriskutsuen menpe zegoela aipatzen baita, Ramiro I.ari erreferentzia eginez.

Behin agirien berrikuspenetik ateratako ondorioak azalduta eta hauek oinarri hartuz, Pérez de Urbelek Ramos Loscertales eta Ubieto Artetaren argumentuak baliogabetzera ekiten dio. Hasteko, kontakizun poetikoetatik ateratako ondorio historikoei helduz, historiagileen kondairen atzean dagoen oinarri historikoa ikertzeko betebeharra defendatzen du, izatez gesta-kanta espainiarraren ezagugarri errealismoa eta egitasuna baitira, askotan iturri historiko bezala aprobeztatu dezakegun punturaino³⁴. Horregatik ez du onartzen juglareen kantak eta herri-kondairak fikzioak besterik ez direnik, Ramosek eta Ubietok proposatzen duten moduan. Hurrengoarekin jarraituz, Ramiro I.a bere agirien protokoloan errege izendatu ez izana ez du argumentu sendo bezala aintzat hartzen, Aragoiko erregeak bere burua erregetzat hartzen ez zuela frogatuko zuelako eta Fray Justok aukera hau baztertzen du, Aragoiko Iruñearekiko independentzia osoa aldarrikatuz. Azkenik, Jakan jaulkitako txanpoi famatuari dagokionez, hurrengo hipotesia plazaratzen du: txanpona 1043an landuko zen Gartzearen aginduz, Tafallan bere anaia garaitu izanaren oroitzapen gisa.

Dokumentazioa berriz ere aztertzean *Navarra y Castilla en tiempo de Sancho el Mayor* artikuluan egindako zenbait aldarrikapen gezurtazen ditu, adibidez, 1028an dokumentuetan Antso III.aren semeak errege izendatzen hasiko zirela eta izendapen horrek jada erresumaren banaketa aurreikusiko zuela. 1954an Pérez de Urbelek Fernando Gaztelako konde izendatzeak Iruñako errege handiak jada zatiketean pentsatu zuelako frogaz zela esango zuen (hortaz, goizenez 1029an izango genuke Antsoren planaren berri). Baina bi artikuluen arteko kontraesan nagusia orokorrean Iruñako erresumaren, eta konkretuki Antso Nagusiaren, errekonkistaren aurreko jarrerari emandako interpretazioa da. Lehenengoan Antsori leporatzen zaio Tuterarantz begiratu ordez Astorga konkistatu izana eta Kalifatuaren zatiketarekiko axolagabetasuna nabarmentzen da. Bigarrenean, ordea, Ramiroren anaiek Aragoi zenbait toki konkretu jasotzearen arrazoia Antso III.ak semeen arteko mairuen elkarlana sustatzea izan zela

34 Pérez de Urbel, 1954, 23.

esaten du. Horrela, aitaren pentsaerarekin jarraituz, Tafallako garaipena eta gero Gartzek Ramiro barkatuko zuen etsai komunaren (Fray Justorentzat, musulmanak) aurkako etorkizuneko borrokan bere anaiaren laguntza beharko zuelako. Musulmanen aurkako anaitasun sentimendu hori 1044an berretsiko zen Fernando, Gartzea eta Ramiroen arteko bilera batean non Pérez de Urbelek hurrengo hipotesia plazaratzen baitu:

Fué aquella una reunión política, en que los tres hermanos debieron formar el propósito de olvidar sus recelos y rivalidades para dirigir sus ambiciones contra los reinos moros, que ofrecían ancho campo a sus actividades guerreras³⁵.

Bigarren artikuluan ez dugu aurkitzen bederatzi urte lehenago plazaratutako kainismoaren ideia, ez Jimenotarren aurkako “zeruko mendekurik” *infant Garcíaren* erailketaren ondorio gisa, ezta Antso Handiaren europartasunik Leon eta Gaztelako ekimen errekonkistatzailearen aurrean. Pérez de Urbelek hankaz gora jartzen ditu 1945eko artikuluan islatutako proposamen guzti hauek eta anaien arteko batasuna azpimarratzen du mairuei aurre egiteko orduan, haien aitak bere jaraunspenean adieraziko zuen desioa betetz.

5. Ondorioak:

Ñabadorekin, Lafuente, Balparda eta Pérez de Urbel uste berekoak dira Antso Nagusiaren erreinu-banaketaren inguruan: erregeak semeen artean banatu zituen bizirik zegoelarik, Gartzeari Nafarroa emanez, Fernandori Gaztela, Ramirori Aragoi eta Gonzalori, Sobrarbe eta Ribagorza³⁶. Horren ondorioz, bi erreinu berri sortuko ziren Espainian: Gaztela eta Aragoi, haien buru Antso Nagusiaren dinastia egongo zelarik. Interpretazio tradizional horretan nabaria da XII. mendeko kroniken eragina³⁷.

Modesto Lafuente da irakurketa horri hasiera ematen diona. Berarentzat, Nagusiaren erreinu-banaketa zoritxarrekoa izan zen Espainiaren historiarentzat: Iruñeko erregeak hegemonia politikoa jatorri bisigotikoko espainiar dinastien desagerpenari esker lortu zuen eta haren semeak, hegemonia berreskuratzeko asmoz, haien artean

35 Pérez de Urbel, 1954, 25-26.

36 Ñabarduren artean aipagarria da Balpardak seme gazteena ez aipatzea Antso Nagusiaren jaraunspenean.

37 Martínez Díez, 2007, 177.

borrokatu ziren, errekonkista-prozesua atzeratuz. Izan ere, errekonkista ideal politikoa da Erdi Aroa kristau eta mairuen arteko gatazkan oinarritzen den ikuskeran oinarritutako historiografia nazionalarentzat, non katolikotasunak berebiziko garrantzia baitauka; katolikotasun hori konstantea da Lafuenteren obran, historialari probidentzialista baita.

Balpardarentzat ere jaraunspena zoritzarrekoa izan zen espainiar erreinuen arteko muga etniko, historiko eta geografikoak aldatu zituelako. Lafuenteren espainiar izaeraren ikuskera esentzialista baino gehiago, bilbotarrak Espainiaren parte ziren estatu desberdinen izaera desberdinak nabarmendu zituen Kantabriako dukatua osatzen zuten eskualdeen arteko ahaidetasuna azpimarratzeko, nafarren anbizioen aurrean. 1037 ondoren Iruñeko erreinuaren menpe Araba eta Gaztela Zaharra gelditzeak gaztelauen erreakzioa bultzatuko zuen lur horiek berreskuratzeko, 1076an gertatuko zena. Horrela, anai arteko liskarrak haien estatuen mugak (aldagaitzak Balpardarentzat) defendatzeagatik izango ziren batez ere. Horretaz aparte, Probidentzia historiaren motore denik aldarrikatzen ez badu ere, aipagarriak dira patuari buruzko aipuak.

Pérez de Urbelek bere aurrekarien tonu epikoa, fededun eta ez-fededunen arteko gatazkaren ikuskera eta probidentzialismotik gertu egon daitekeen jarrera hartzen ditu, lehen artikuluan batez ere. Bertan herri espainiarren arteko desberdinasunetan sakontzen du, Balpardaren antzera gaztelauen eta nafarren arteko desberdintasunak eta are aurkakotasunak azpimarratuz. Hori aldatzen da Ubieto Arteta eta Ramos Loscertalesen tesi berriei aurre egiten dienean, bigarren artikuluan: bertan, tonu epikoa eta herrien arteko desberdintasunak baztertuta, Antso Nagusiaren semeen arteko harreman adeitsuen defentsa egiten du Antso hil ondorengo hilabeteetan, haien anaitasuna nabarmenduz mairuen aurkako borrokan.

Hiru historialariak haien garaiaren adierazle dira: hirurek politikan parte hartu eta haien lan historikoetan horren islada utzi zuten. Lafuenterek, XIX. mendeko historiografia gehienak bezala, espainiar nazioa legitimatzeko saioa gauzatzen du *Historia general de España* lanean, espainiarrak katolikoekin identifikatuz. Balpardak espainiarren katolikotasun hori onartu arren, bere helburua oso bestelakoa zen: euskal nazionalismoaren propaganda politikoa baliogabetzea. Horretarako, gaztelauen, errioxarren eta euskaldunen³⁸ ahaidetasuna nabarmendu zuen nafarren aurrean.

38 Hemen, euskaldunak egungo Euskal Autonomia Erkidegoa eta Trebiñuko Konderrria barne hartuko zuen esparruan bizi ziren biztanleak izango ziren.

Azkenik, Pérez de Urbelek bere artikuluetan espainiarren esentzia katolikoa azpimarratu zuen, XIX. mendean Lafuente bezalako historialariek hasitako espainiarren historia amankomunaren diskurtso ideologikoarekin jarraituz, momentu batean non nazionalkatolizismoa Frankismoaren ideologia estraofiziala baitzen³⁹.

Lehen begiratuan historiagile hauen planteamenduak arrotzak iruditu ahal zaizkigu baina haietako batzuen eragina nabarmena da gaur egun. Modesto Lafuentek aipatutako patu madarikatua eta Espainiako zoritxarraren ideien adibide argia Arturo Pérez-Reverte idazlea da, espainiarren “madarikazio historikoaz” eta kainismoaz maiz hitzegiten duena artikulua eta elkarrizketa desberdinetan. Kontuan hartu behar dugu Pérez-Reverte espainiar idazlerik irakurriena dela munduan zehar, iritziak zabaltzeko gaitasun handia izanik; 2019ko apirilean *Una historia de España* dibulgazio-artikulu historikoen bilduma kaleratu zuen, non ikuskera historiko hau islatzen duen. Lan hau 2020ko lehenengo hilabeteetan oraindik Espainian gehien saldutako liburuen artean zegoen⁴⁰.

Balpardak utzitako ondarearekin jarraituz, bere obrak, batez ere Nafarroan, oihartzun politikoa izan du: zenbait girotan, Antzinaroko herrien banaketa geografikotik abiatuz (baskoiak egungo Nafarroan; vardulo, karistio eta autrigoiak Euskal Probintzietan), Nafarroa eta Euskadi Espainiaren osagai gisa ikusten dira, elkarrenganako inolako ahaidetasunik gabe. Izan ere, Jaime Ignacio del Burgo bezalako autoreentzat Euskal Herria esanahi politikorik gabeko kontzeptu kultural bat da, euskal kultura beste batzuekin batera Nafarroa anitz baten parte izango zelarik⁴¹, euskal nazionalismoak proposatzen duen historia partekatuaren aurrean.

Pérez de Urbelek aldarrikatutako Erdi Aroko espainiar erreinuen arteko izaera desberdintasunek ere gaurkotasuna hartu dute. Izan ere, monje beneditarrarentzat Gaztelako konderrria estatu desberdinen arteko mugan kokatuta egon izanak nazionalismo gaztelau baten eraketa bultzatuko zuen. Gaur egun, zenbait leondarrek Gaztela eta Leonen arteko desberdintasun historikoak aldarrikatzen dituzte, Gaztela eta Leoneko autonomia zatitu eta Leoneko erkidegoa lortzeko helburuarekin; aldarrikapena

39 Lorenzo, 2017, 209.

40 <https://blogs.20minutos.es/xx-siglos/2020/02/17/los-libros-de-historia-mas-vendidos-en-enero-de-2020/>

41 <https://www.clublibertaddigital.com/ilustracion-liberal/29/navarra-por-todas-partes-me-roen-defensa-de-la-constitucion-espanola-jaime-ignacio-del-burgo.html>

berria ez den arren, azken aldian indarra hartu du.⁴²

Azkenik, Balparda eta Pérez de Urbelen kasuan, haien memoriaren inguruko arazoak suertatu dira. Azken urteetan bilbotarra 2007ko Memoria Historikoaren Legearen harira aipatua izan da. Frankismoarekin harreman zuzenik ez izan arren, bere izena askotan agertu da espazio publikotik erretiratu beharreko pertsonaien izenen artean (Bilbon kale bat dauka bere izenean eta bere erretratu bat dago hiriko udalean, alkate izan baitzen), beti ere kasu zalantzarri gisa⁴³. Pérez de Urbeleri dagokionez, 2019ko udan aitortutako dekretu-lege baten arabera, *Valle de los Caídos*en bakarrik Espainiako gerra zibilean zehar hildako pertsonak lurperatuta egon daitezke. Baldintza hori betetzen ez duten ehunka pertsonen artean Fray Justo aurkitzen da; 2019ko urrian Francoren gorputza exhumatu bazen ere, monje beneditarraren arrastoen etorkizuna oraindik ezezaguna da⁴⁴.

42 <https://www.elperiodico.com/es/politica/20200209/movimiento-leonesista-leon-castilla-7827910>

43 https://www.eldiario.es/norte/euskadi/Fantasmas-franquistas_0_233777004.html

44 <https://www.elindependiente.com/politica/2018/11/10/valle-caidos-decretazo-amenaza-descanso-eterno-19-monjes/>

Bibliografía:

BALPARDA DE LAS HERRERÍAS, G., *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*, I. liburukia, Madril, 1924.

BALPARDA DE LAS HERRERÍAS, G., *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*, II. liburukia, Bilbo, 1933-1934.

LAFUENTE ZAMALLOA, M., *Historia general de España. Desde los tiempos más remotos hasta nuestros días*, I. liburukia, 1850-1851. Hemendik hartua:

<https://drive.google.com/file/d/1PTcutECiqYjUu0g0SVXhSses4bF7NUSx/view>

[2020/18/5]

LORENZO JIMÉNEZ, J., “Arqueología de Al-Andalus durante el Franquismo”, in F. J. Moreno Martín (koord.), *El franquismo y la apropiación del pasado: el uso de la historia, de la arqueología y de la historia del arte para la legitimación de la dictadura*, Madril, 2017, 209-234. or.

MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Sancho el Mayor: rey de Pamplona, rex ibericus*, Madril, 2007.

PÉREZ DE URBEL, J., “Navarra y Castilla en tiempo de Sancho el Mayor”. *Príncipe de Viana*, 18, 1945, 39-61 or.

PÉREZ DE URBEL, J., “La división del reino por Sancho el Mayor”, *Hispania*, 54, 1954, 3-26 or.

20 Minutos: <https://blogs.20minutos.es/xx-siglos/2020/02/17/los-libros-de-historia-mas-vendidos-en-enero-de-2020/> [2020/02/26]

Libertad Digital: <https://www.clublibertaddigital.com/ilustracion-liberal/29/navarra-por-todas-partes-me-roen-defensa-de-la-constitucion-espanola-jaime-ignacio-del-burgo.html> [2020/05/18]

Eldiario.es: https://www.eldiario.es/norte/euskadi/Fantasmas-franquistas_0_233777004.html [2020/04/23]

El Periódico: <https://www.elperiodico.com/es/politica/20200209/movimiento-leonesista-leon-castilla-7827910> [2020/05/16]

Nabarralde: <https://nabarralde.eus/el-arrano-beltza-simbolo-distinguido-en-el-palacio-de-nafarroa/> [2020/04/23]

Real Academia de la Historia:

□ <http://dbe.rah.es/biografias/11534/modesto-lafuente-y-zamalloa> [2020/02/26]

□ <http://dbe.rah.es/biografias/34170/gregorio-de-balparda-de-las-herrerias>
[2020/04/23]

□ <http://dbe.rah.es/biografias/5460/justo-perez-santiago> [2020/05/15]

Valledeloscaidos.es: <http://www.valledeloscaidos.es/files/fray-justo-perez-de-urbel.pdf>
[2020/05/15]